LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKAGAIEN POLITIKAKO SAILBURUORDETZAREN (NAEPSO) LAN KOADERNO OFIZIALAREN SISTEMA INFORMATIKOAREN BILAKAERA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO. – I. FASEA

EDUKIA

Egungo kode eta arkitekturaren migrazioa eta bilakaera. 3
Bisore kartografikoa sartzea 3
Diseinu modularra 3
Kanpoko iturriak 4
Lanen jarraipena 4
Egutegia eta alertak 4
Mahaigain Birtuala 5
Garapenaren antolamendua 5

HELBURUA

Helburua da eguneroko lanen gaur egungo aplikatiboaren bilakaera. Horretarako, hau egin beharko da:

- Aplikatiboa gaur egungo web lengoaia eta arkitekturetara migratu eta egokitu. Planteatutako proposamenak izan beharko duen bilakaera nagusietako bat da web aplikazioaren diseinua responsive izan beharko dela.
- Sistema egokitu HAZIk emango dituen eskakizun funtzional berrietara.
- HAZIren beraren garapeneko bisore kartografikoa sartu.
- Web zerbitzuen bidez kanpoko iturriak/erregistro ofizialak irakurri eta bidali ahal izateko funtzionalitateak eman.
- Egutegi eta alerten modulu edo atal espezifiko bat sortu.

AURREKARIAK


NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKAGAIEN POLITIKAKO SAILBURUORDETZAK (NAEPSO) landa koaderno digital bat dauka, egokitu egin behar diren hainbat teknologia eta planteamendurekin garatu zena, ministerioaren eskakizunei erantzuteko, batez ere produktu fitosanitarioen kudeaketari dagokionez.

Koaderno hori sortu zenetik, webguneen garapenean erabiltzen diren programazio lengoaiek eta teknologiek eskaintzen dituzten aukerek aldaketa sakona izan dute, baita datu baseetan informazioa biltegiratu, eskuratu eta ustiatzeak ere. Aldaketa horiek, bisore kartografikoen bilakaerarekin batera, informazioa modu grafikoan eskuratzeko eta editatzeko aukera ematen dute, eta aukera ematen dute lan koadernoa modu bisual eta intuitiboagoan erabiltzea ahalbidetuko duen planteamendua egiteko. Erabiltzaile potentzialek sarrerako informazioa eguneratuta eduki dezakete, web zerbitzuen bidez erregistro eta katalogo ofizialetara konektatuta, eta, era berean, ministerioak eskatutako informazioa arin bidali daiteke.

Landa koadernoak aukera ematen du, sisteman logeatu ondoren eta dagozkion baimenekin, erabiltzaileak sortutako labore unitateak kudeatzeko, bere Ustiapen Erregistroari lotutako esparruen basetik. Horiek batu, zatitu edo editatu egin daitezke, bisorea nahiz lotutako taula alfanumerikoak erabilita, laborantza unitate horiek sortzeko eta, ondoren, unitate horiei zereginak estekatzeko.

Zereginen atalean, laborantza unitate bakoitzean egiten diren lanei buruzko informazioa erraz idatzi, kontsultatu, aldatu eta bikoiztu daiteke.

Lan horietako bakoitzak informazio sorta bat darama lotuta, eta informazio hori osatu egin behar da, edo, hala badagokio, autoosatu egiten da, lotutako geometrietatik hartuta. Adibidez, lan horiek dira, besteak beste, ereiteko prestatzea, ongarritzea, biltzea, ureztatzea, lurzorua prestatzea edo fitosanitarioak aplikatzea.



PROIEKTUA

Lizitazioaren esleipena ebatzi ondoren, HAZIk egin beharreko lanen oinarri diren analisi funtzionalak emango ditu.

Analisi horiek ikusita, enpresa esleipendunak tresnaren prototipoaren proposamen bat egingo du, HAZIk balioztatu beharko duena garapenari ekin aurretik.

Hortik aurrera, enpresak tresnaren garapenaren eta egokitzapenaren mugarri garrantzitsuak finkatuko ditu. Aipatzekoa da mugarri horiek lehentasuna emango diotela fitosanitarioen eta ongarrien atalak abian jartzeari. Hor sartzen da, baita ere, Ministerioaren erregistro ofizialetarako sarbidea, atal horiei lotutako informazio guztia erregistratzeko, osatzeko eta/edo balioztatzeko.

Egungo kode eta arkitekturaren migrazioa eta bilakaera.

Egungo lan koadernoaren oinarritik abiatuta, plataforma eta gailu anitzeko soluzio bat inplementatu beharko da, Vista-Controlador arkitektura baten pean. Egungo lan koadernoan dauden funtzionaltasunak mantenduko dira, gutxienez, eta tresnaren kodea eta arkitektura eguneratuko dira.

Bisore kartografikoa sartzea

HAZIk GIS osagai bat dauka (API JS, OpenLayersen oinarritua), eta "geo zerbitzu" propioak. HAZIko GIS arloak GIS funtzionalitatea jarriko du, baita beharrezko datu kartografikoen zerbitzuak ere, etea esleipendunaren zeregina izango da osagai hori hasierako prototipoan jarriko den erremintan kokatzea, betiere arloaren laguntza eta ikuskapenarekin.

Planteatutako soluzioa ahalik eta bisual eta intuitiboena izan behar denez, bisore horrek zeregin protagonista izan behar du soluzio horretan. Interakzio arina eta integratua eskaini behar da bisorearen eta pantailetan erakutsitako datuei lotutako informazio alfanumerikoaren artean.

Diseinu modularra

Garapenak modulu independenteetan aurrera egitea ahalbidetuko du. Horrenbestez, dagoeneko garatuta daudenen funtzionamendua bermatuko da, eta beste batzuk garatu ahal izango dira, dagoeneko operatibo daudenen funtzionamendua oztopatu gabe.

Lehenengo moduluak Fitosanitarioak eta Ongarriak izango dira, eta, ondoren, aurkeztutako proposamenaren irismenaren definizioaren barruan, hurrengoak landuko dira. Kontuan hartu behar da lan modulu guztiek nukleo komun bat dutela, eta nukleo hori landuko da lehenengo horiek garatzean.

Kanpoko iturriak

Sistemak kanpoko informazio iturriekin komunikatu beharko du, hainbat web zerbitzu eta erregistrotarako sarbideak erabiliz. Horrela, planteatutako garapenean kontuan hartu beharko da definitzen diren iturrietatik eta iturri horietara egindako irakurketa eta/edo bidalketa.

Kasuaren arabera, beste erregistro batzuetako web zerbitzuen kontsumoa garatuko da (batzuetan, Ministerioaren erregistro ofiziala), edo sistema honetarako web zerbitzuen sarbidea, hirugarrenek kontsumitu ditzaten.

Lanen jarraipena

Lanak kudeatzeko planteamendu modularraren arabera, atal espezifikoak jarri beharko dira, landa lanak erregistratu ahal izateko.

Tresnak modu independentean kudeatuko du lan modulu horietako bakoitza, eta alderdi hauek jasoko ditu:

- nukleo komunean identifikatutako atributuak, besteak beste, definizio grafikoa, gauzapen datak…
- lan bakoitzaren berezko atributu espezifikoak
- eta espezifiko horietarako osagarriak, baldintza jakin batzuen arabera (ustiapen tipologia, kalitate erregistroak...).

Egutegia eta alertak

Tresnak egutegi bat izango du, erregistratutako lanak modu intuitiboan erakusteko.

Halaber, modulu horrek hainbat abisu definitzeko aukera emango du. Horiek programatutako egunetan abiaraziko dira, erabiltzaileari egin beharreko jarduera gogorarazteko.

ESPARRU TEKNOLOGIKOA

Ondoren, kontratu honetarako abiapuntua izango den lan testuingurua zehazten da, lan eskakizunek edo beharrek eragindako edozein aldaketa alde batera utzi gabe, eta, horrelakorik egonez gero, Proiektuaren Zuzendaritzarekin adostuko da.

Mahaigain Birtuala

HAZIk erabiltzaileak jarriko ditu urruneko mahaigainera (CITRIX) sartzeko, hauekin:

- Garapen tresnak
- Abiapuntuko oinarrizko proiektua

Garapenaren antolamendua

- Lan metodologia gisa, bistaren eta negozioaren garapen paraleloa ahalbidetuko duten mock-ak erabiliko dira. Mock horiek analisi funtzionaletik abiatuta behar diren web service metodoen definizioan oinarrituko dira.
- Ezarritako aplikazioaren garapena **Visual Studio 2015** da.
- Negozioaren zatirako **RecApINet** erabiliko da: HAZIren Liburutegia eta **Jazz Programa (v1.2.65.02)**. HAZIk garatutako tresna da, HAZIren metodologiarekin negozio motak sortzeko.
- Bista **Bootstrap** erabiliz garatuko da, **AdminLTE** txantiloiarekin.
- Kodea kontrolatzeko eta horren bertsioa egiteko erabiltzen den tresna **Tortoise Subversión 1.8** da, eta Visual Studioren garapeneko IDE mailako hedapena ere badago: **Ankhsvn**
- Proiektuaren datu baseak **Oraclen** daude.
- Txostenak SQL Server 2016ko edo hortik gorako Reporting Servicesen egingo dira. HAZIk bideratzaile bat dauka teknologia horretan garatutako txostenak erabiltzeko (dokumentazioa garapenean zehar entregatuko da).

- Beste batzuk. Lantaldeek eta Proiektuaren zuzendaritzak adostuta ezartzen den beste arau edo estrategia bat.